

DURANGOKO KALEKO SALMENTA
ETA AZOKA TXIKIAK ARAUTZEN
DITUEN ERREGELAMENDUA

Hasierako onarpena: Udalbatzak, 1986ko apirilaren 9ko Udalbatzaren ezohiko bilkuran.

Argitalpena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 1987ko urtarrilaren 13ko eranskinean.

Aldaketa: 1994ko irailaren 29ko ohiko osoko bilkuran.

Aldaketaren argitalpena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 224. zenbakia, 1994ko azaroaren 24koa.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. ARTIKULUA- Ordenantza honen xedea da txikizkako salmentak, trukeak eta kaleko salmentari lotutako jarduerak arautzea, edozein dela ere haien izaera, betiere eremu publikoan edo pribatuan egiten badira, saltoki iraunkor batetik kanpo, leku eta data finko edo aldakorretan.

II. ARTIKULUA- Ordenantza honen interpretazioan zalantzarik sortuz gero, “Merkataritza Jardueraren Antolamenduari” buruzko Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 19ko 9/1983 Legeak aginduko du.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako organoek beren araudia interpretatzeko duten eskumenari kalterik egin gabe, Udalak egindako interpretazioek benetako izaera eta indarra izango dute, Ordenantza onartzeko baldintza eta betekizunekin, eta erabateko eraginkortasuna izango dute.

II. KAPITULUA

KALEKO SALMENTA

III. ARTIKULUA- Erabat debekatuta daude Ordenantza honetan baimendu gabeko jarduerak, baita nahiz eta Ordenantzak baimendu, betekizun eta baldintzak betetzen ez dituzten edo baimendu gabeko tokietan egiten diren jarduerak.

Udalak kaleko salmenta baimendu ahalko du, gehienez ere astean bi (2) egunez, araudi honetan adierazten diren baldintzekin eta, betiere, Udal honek ezartzen duen herri fisikoaren barruan.

IV. ARTIKULUA- Jarduera hau Durangoko Udalak zehazten dituen lekuetan egingo da.

V. ARTIKULUA- Udalbatzak kaleko salmentarako baimenak emateko, merkatarik interesdunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kuota finkoari edo Industria-Zergaren Lizentzia Fiskalari dagokion epigrafean alta emanda egotea eta ordainketa egunean edukitzea.
- b) Durangoko Udalaren Ordenantzek zehazten dituzten tributu edo arielak egunean edukitzea.

- c) Atzerritarren kasuan, egoitza-baimenak eta norberaren kontura lan egiteko baimenak eduki beharko dituzte, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintzak betez.
- d) Dagokion Gizarte Segurantzako araubidean alta emanda egotea.

VI. ARTIKULUA- Aurreko artikuluan aipatzen den baimena artikulua horretan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta Eusko Jaurlaritzak eska ditzakeenei bakarrik eman ahal izango die Udalak.

Baimena ematea aukerakoa izango da eta aldez aurretik kalte-ordainik eman gabe ezeztatu ahal izango da, baimena emate eragin zuten inguruabarrak edo titularraren inguruabar pertsonalak desagertzen direnean, eta, nolahi ere, Ordenantza hauen arabera baimena ezeztatzea eta iraungitzea eragiten duten inguruabarrak gertatzen direnean.

Udal-baimena saltzaileak eraman beharko du, eta edozein unetan erakutsi beharko du, agintaritzaren agenteek edo udal-funtzionarioek hala eskatzen badiote.

VII. ARTIKULUA- Kaleko salmentarako baimenak ezaugarri hauek izango ditu:

- a) Pertsonala eta besterenezina izatea.
- b) Indarraldia Udalak baimena ematen den unean zehazten duena izango da; epearen hasierako eta amaierako datak dagokion egiaztagirian adieraziko dira.

Ezin izango da, inola ere, urtebetetik gorako baimenik eman.

- c) Baimenak saltzailearen inguruabar hauek jasoko ditu; bere Nortasun Agiri Nazionala eta helbidea; jarduera zein lurralde-eremutan egin dezakeen; salmenta-postuaren neurri estandarizatuak; jarduera zein egun eta ordutan egin ahal izango den, eta salmentarako baimendutako produktuak.

VIII. ARTIKULUA- Durangon bizi diren saltzaile ibiltariak lehentasuna izango dute baimenak emateko orduan.

Gainerako kasuetan, Durangon lanean antzintasun handiena dutenei emango zaie lehentasuna.

IX. ARTIKULUA- Kaleko salmenta, desmuntagarriak diren postu edo instalazioetan egin beharko da, eta ezin izango dira kokatu, merkataritza- eta industria- sarbide edo guneetan ezta horien erakusleiho edo erakusketetan ere. Era berean, ezin izango dira eraikin publikoetako sarbide edo fatxadetan kokatu.

Postuen neurriak bat etorriko dira Udalak kasu bakoitzean aurreikusitako azalera estandarizatuekin.

Debekatuta dago postu eta instalazio horietatik kanpoko kaleko salmenta, bereziki, oinezkoentzako sarbide zuzena denean. Hala ere, badaude salbuespenak: batetik, loteria eta egunkari saltzaile ibiltariak, eta, bestetik, profesionalak ez izan arren helburu zehatz eta noizbehinkakoetarako antolatutako kanpainengatik dohaintzak oinarri hartuta hainbat objektu ematen dituztenak. Horiek guztiek udal-baimena beharko dute, aratuko den moduan.

X. ARTIKULUA- Segurtasun- eta higiene-arrazoiak direla eta, eta Elikadura Kodeak ezarritako ildoari jarraituz, erabat debekatuta dago arrain eta haragia (freskoa nahiz izoztua), hestebeteak, gaztak eta esnekiak saltzea.

Baimendutako produktuak ehungintzako, artisautzako eta bolumen txikiko apaingarriak soilik izango dira.

III. KAPITULUA

AZOKA TXIKIAK

XI. ARTIKULUA- Azoka txikiak Udalak baimendutako saltzaile ibiltarien kontzentrazioak dira, kaleko salmentarako aurreikusitako baldintza orokorren barruan.

XII. ARTIKULUA- Dagozkion baimenak Udalak banan-banan emango ditu, Arau hauetako II. Kapituluan jasotako betekizun eta baldintzetan.

XIII. ARTIKULUA- Azoka txikiak gehienez ere astean bi (2) egunetan soilik egin daitezke.

XIV. ARTIKULUA- Hobeto arautzeko, Udalak txartel edo agiri bat emango dio merkatu horietara sartzeko den saltzaileari. Txartel horretan, kontsumitzaileen erreklamazioei zein helbidetan erantzun zaien adieraziko da, eta helbide hori saltzaileak salmentak dirauen bitartean jendaurrean eduki beharko du.

XV. ARTIKULUA- Azoka txikiak larunbatetan egingo dira, Udalak horretarako zehazten dituen eremuetan.

Udalak dauden postuak itxi eta berriak zabaltzeko edo horien kokalekua aldatzeko ahalmena izango du, kaltetuei kalte-ordainik eman behar izan gabe.

XVI. ARTIKULUA- Eskubideak eta tasak Udalak esleipen-erabakian adierazitako moduan eta epeetan ordainduko dira.

Ez ordaintzeak edo ordainketa-zatiak epez kanpo ordaintzeak baimena iraungitzea ekarriko du, inolako kalte-ordainik gabe. Baldintza horiek banakako baimenetan jasoko dira.

IV. KAPITULUA

KALEKO SALMENTAKO BESTE KASU BATZUK

XVII. ARTIKULUA- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, eta gaiaren heterogeneotasuna kontuan hartuta, Udalak aurreko kapitulueta kasuetan jasotzen ez diren kaleko salmentarako beste baimen batzuk eman ahal izango ditu.

Modalitate horiek, besteak beste, artikulua hauetan zehazten dira:

XVIII. ARTIKULUA- Urteko egun jakin batzuetan bakarrik egiten diren salmenta tradizionalak (jai erlijioso edo patronalak), edota aldi baterakoak (Gabonetako salmenta espezifikoak: zuhaitzak, irudiak...; Domu Santukoak: koroak, loreak...), Alkatetzak baimendu ahal izango ditu, irizpide murriztaile eta hautaketa-irizpide bati jarraituz, eta baimenean jarduera horien iraupena eta kokalekua zehaztu beharko dira.

XIX. ARTIKULUA- Sasoian sasoiko salmenta finko eta egonkorak (hala nola, litxarrerriak, gaztainak, izozkiak etab.), Alkatetzak baimendu ahal izango ditu, udal zerbitzu teknikoek zehazten dituzten lekuetan, eta postuok ezin izango dira elkartu merkatu txikiak sortzeko.

Postuek ezingo dute inoiz establezimendu publikoetarako sarrera oztopatu. Gainera, ezingo dira 50 metroko erradioan produktu horiek saltzen diren gunen batean egin, ezta ibilgailuen edo oinezkoen zirkulaziorako oztopo izan daitezkeen lekuetan ere.

Saltzaile horiek Ordenantza honetako V. eta VI. artikuluetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

XX. ARTIKULUA- Udalak zehazten dituen eremu eta ordutegien barruan, tamaina txikiko eta bildumarako objektuak trukatu, erakutsi eta saldu ahal izango dira, esaterako: txanponak, zigiluak, mineralak, txoriak, arrainak, txakurrak eta bestelako animaliak.

Udal zerbitzu eskudunak arduratuko dira zerbitzu horien diziplinaz, eta aurrekoen artean sartzen ez diren artikulua saltzea eragotziko dute.

XXI. ARTIKULUA- Udalak, Merkataritza Ganberari kontsulta egin ondoren, artisautza edo arte merkatu bat sortu ahal izango luke. Merkatu horren helburua eskuz egindako objektuak merkaturatzea izango litzateke, eta egileak izan beharko lirateke saltzaileak.

Artisautza edo arte merkatu hau sortzean, Udalak bere kokapena, postu kopurua eta horien ezaugarri estandarrak, merkaturaren egingo diren egunak, saltzaileek bete behar dituzten baldintzak eta merkaturaren diziplinari buruzko gainerako zehaztapenak finkatuko ditu, kontuan hartuta soilik artisau edo arte produktuen erakusketa eta salmenta dela.

XXII. ARTIKULUA- Kirol-ekitaldien harira egiten diren salmentak (futbol-partidak, kirolak oro har eta kultur ekitaldiak), baldin eta salmentaren gaia ekitaldi horiekin zerikusia duten artikuluetara mugatzen bada, Alkatetzak baimendu ahal izango ditu. Baimen horietan

salmentaren egun zehatzak, salmentaren gaia eta gainerako inguruabar orokorrak adieraziko dira.

V. KAPITULUA

IKUSKAPENA ETA ZEHAPENAK

XXIII. ARTIKULUA- Kaleko salmenta Udaleko organoek ikuskatuko dute. Organo horiek adieraziko dute, hala badagokio, arau-hausteen espedienteak kasuan kasuko zerbitzu teknikoen bidez izapidetuko dituztela, gaiaren arabera.

Ordenantza hau osatzeko, Udaltzaingoaren Burutzak zainduko du erabiltzaileek ordenari eustea eta arau hauek eta gai honi buruz aurrerantzean emango dituztenak betetzea.

Kaleko salmenta egiteko baimena dutenek, lanaldiaren amaieran, hondakin eta zaborrez garbi utzi beharko dituzte beren tokiak.

XXIV. ARTIKULUA- Saltzaileek Ordenantza honetako xedapenak betetzen ez badituzte, Udalak hamar mila (10.000,-) pezetarainoko isuna jarri ahal izango du. Gainera, salgaiak eta baimenak kentzeko eskubidea izango du.

Zehapen espedientearen isunaren zenbatekoa mailakatuko da, arau-haustearen garrantziaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA.- Udalak ordenantza honi dagokion Ordenantza Fiskala egokituko du.

BIGARRENA.- Udalak araudi honetan aipatzen diren baimenak ukatuko dizkie Udal Zergak ordaintzen ez dituztenei.

HIRUGARRENA.- Udalak arau hauetan arautzen diren jarduerak egiteko toki egokiak adieraziko ditu, horretarako muga zehatz batzuk ezarritik.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

DILIGENTZIA.-

Nik, Udalbatzako idazkari nagusiak, diligentzia hau bete dut, Araudi hau Udalbatzak 1986ko apirilaren 9an egindako ezohiko bilkuran onartu zela jasota gera dadin.

Durangon, 1997ko azaroaren 24an.

O.E
Alkatea,

Idazkaria,

DILIGENTZIA.-

Nik, Udalbatzako idazkari nagusiak, diligentzia hau bete dut, araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 1987ko urtarrilaren 13ko eranskinean argitaratu zela jasota gera dadin.

Durangon, 1997ko azaroaren 24an.

O.E
Alkatea,

Idazkaria,

DILIGENTZIA.-

Nik, Udalbatzako idazkari nagusiak, diligentzia hau bete dut, 1994ko irailaren 29ko ohiko osoko bilkuran erregelamendu hau aldatzea onartu zela jasota gera dadin, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-jardueraren maiatzaren 27ko 5. eta 14. artikuluei eragiten dien 7/1994 Lege berriaren baldintzekin (ekainaren 13ko EHAA argitaratua).

Durangon, 1997ko azaroaren 24an.

O.E
Alkatea,

Idazkaria,

DILIGENTZIA.-

Nik, Udalbatzako idazkari nagusiak, diligentzia hau bete dut, aipatutako aldaketa 1994ko azaroaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 224. zenbakian argitaratu zela jasota gera dadin.

Durangon, 1997ko azaroaren 24an.

O.E
Alkatea,

Idazkaria,